

Entzun arren, San Fermin, zu ez zaitugu patroï

TOLOSA (GALIA), 250. Saturnino misiolari erromatarra Akitaniara iritsi zen Grazio eta Dezioren kontsulgo urteetan. Fede kristaua hedatzeko predikatzen aritu zen Galian, Pirinioetan eta Iberiar penintsularen iparraldean, eta Tolosako lehen gotzaina izan zen, handik urte gutxira, 257. urte inguruan, paganoek martiritzatu hil zen arte. Horixe diote behintzat Surioaren Agiriei; beste iturri batzuek, San Saturninoren agoriei esaterako, predikaria K.o. I. mendean bizi izan zela diote.

Tradizio kristauaren arabera, Tolosako apezpikua zela Saturnino Iruñera joan zen Honesto laguntzailearekin batera. Gaur egun San Saturnino eliza dagoen tokian Diana jainkosari eskainirako tenplua omen zegoen orduan, eta parean, ur putzu bat. Honestok, Saturninok eta haien jarraitzaileek 40.000 pertsona bataiatu omen zituzten putzu horretan.

Besteak beste Firmo senatari erromatarra bihurtu zuen kristautasunera Pompaelon zen bitartean. Firmoren seme Fermin Saturninok berak bataiatu omen zuen; baina San Saturnino eta San Ferminen jaiotza eta heriotza data zehatzak jakiterik ez badago ere, lehena 257. urte inguruan hil zen eta bigarrena 272an jaio. Beraz, ez dirudi elezaharrak dioena benetan gertatu zenik.

Fermin 24 urterekin izendatu zuten Amienseko gotzain. Zazpi urte geroago, hainbat erromatar aurkarik bultzatuta, kartzelan sartu zuten eta burua ebaki zioten. 1186an Pariseko gotzain Pedrok San Ferminen erlikiak Iruñean egon behar zirela erabaki zuen, eta santuaren arrastoak —haren kristautza lanaren aurka zeudenek moztutako burua, hain zuzen— Amiensetik Iruñera eraman zituzten. Horrek San Ferminen gurtzari bultzada handia eman zion, baina ordurako Iruñean jaiotako santua ez zen bakarri iruindarren zaindari izateko lehian.

X. mendean biztanle frankoen kopuruak nabarmen egin zuen gora



San Saturninoren irudia Iruñeko kaleetan prozesioan.

Iruñean. Etorkinek beren zaletasun erlijiosoak eraman zituzten, eta hala, Tolosako lehen gotzainaren omenezko eliza eraiki eta San Saturninoren gurtza zabaldu zuten.

Duela 400 bat urte, 1611n, San Saturnino Iruñeko zaindari izendatu zuten, eta azaroaren 29ko festa hari eskaini zioten.

Entzierroan irten aurretik, korrikalariak zera kantatzen diote santuari: “A San Fermin pedimos, por ser nuestro patrón...”. 2009tik aurrera euskarazko itzulpena erantsi diote kantari: “Entzun, arren, San Fermin, zu zaitugu patroï...”. Egia da San Fermin Amienseko eta Lesakako zaindaria dela, eta Nafarroako patroigoa partekatzen duela San Frantzisko Xabierrekin. Baina Iruñeko patroia San Saturnino da. Eta, gainera, haren martirioak antz handiagoa du entzierroekin San Ferminenak baino. *Passio Saturnini* dokumentuaren arabera, Saturnino zezen bati lotuta Kapitolioko eskaileretan gora eta behera ibili zuten, bere gorpua txikituta geratu zen arte. ■



Arrastoak

Zergatik dira azenarioak laranja kolorekoak?

KOLORE askotako azenarioak daude: morea, zuria, horia, gorria... K.o. I. mendeko iturriek azenario horiak eta gorriak aipatzen dituzte. Baina zabalduenak laranja kolorekoak dira, aldaera berriena izan arren. XVII. mendea bitartean azenario laranja ez zegoen, eta moreak ziren ohikoak.

XVII. mendean, Herbehereetan, laranja koloreko azenarioak lortu zituzten hainbat mota gurutzatuta. Laranja Orange errege etxearen kolorea da, eta Herbehereetako monarken omenez sortu zuten aldaera. Kolore biziak gain, azenario laranja zapore ona zuten, arina eta gozoa. Gainera, Herbehereak merkataritza potentzia bihurtu ziren mende hartan, eta horrek ere lagundu zuen azenario berria besteen gainetik hedatzen. Holandak azenario kolorea duela pentsatzea, beraz, ez da erabat zuzena; azenarioek dute Holandaren kolorea. ■



USDA ARS

Hainbat koloretako azenarioak.